


6. GAIA: ZUZENBIDE ESTATUA

1. ZUZENBIDE ESTATUAREN KONTZEPTUA

- Zer da? Hiritarrak eta botere organoak arau juridikoen menpeko diren Estatua.
- Boterea erabiltzea ez da diskrezionala
 - Legalitate printzipioa: aurretik onetsi diren legeetan oinarritu behar da.
- Zein da zuzenbide estatuaren arrazoia? Herritarra babestea estatu-botereen organoen arbitrariotasunetik.
- Gizarteko antolakuntza berria ⇒ klase sozialak
- Absolutisten gehiegikeriei aurre egiteko Konstituzio - dokumentu politiko bat agertu zen

BERAZ...

- Estatu modernoa estatu absolutuaren forma politikoarekin jaio zen. Gero estatu liberal bezala konfiguratu eta gaur egun estatu sozial bezala agertzen da.
 - Azken biak zuzenbide estatu dira, lehena ez.
- Zuzenbide estatua ⇒ estatuak muga juridikoak ditu (legalitate printzipioa).
 - Boterea ez da diskrezionala (ezin duzu nahi bezala erabili).



- Aurretik onartutako legeetan oinarritu behar da.

2. OSAGAIK (Garrantzitsua da azterketarako)

I. Lege- inperioaren printzipioa

- Lege estatuko beste ekintza guztien gainera egon behar da
- Hierarkia printzipioaren indarra
- Adibidea: Espainiako gobernuak Kataluniako prozesu subiranistarekin

II. Botere banaketaren printzipioa (Montesquieu)

- Boterea ez da kontzentratu behar
- Botereen arteko oreka sistema
- Adibidea: Koroa - moderatzaile EK 62

III. Administrazioaren legalitatea

- Administrazioak aurrez emaniko legeen arabera jokatu behar du
- Administrazioaren erregimen juridiko bat egon behar du

IV. Oinarrizko eskubide eta askatasunen bermea


- Estatuak gizabanakoen eskubideen bermea ziurtatu behar du

3. SUPERLEGALITATE FORMALA ETA MATERIALA

- Konstituzioa “lex superior” da. Konstituzionaltasun kontrola dago eta konstituzioaren arabeko interpretazioa egin behar da.
- **Superlegalitate formala:** konstituzioak botere publikoak nola sortu eta funtzionatzen duten ezartzen du (funtzionamendua, prozedurak...). Estatu botereak arautzen ditu Konstituzioak.
- **Superlegalitate materiala:** botere publikoek ezin dute Konstituzioan jasotako balore eta printzipioen aurka jo. Bestela konstituzio kontrako deklaratu daitezke.

4. ITURRI SISTEMA

ITURRI SISTEMA:



5. EK 93 NAZIOARTEKO ITUNAK

- Lege organikoaren bidez itunak sinatzeko baimena eman daiteke; itunok direla eta, nazioarteko antolakuntza edo erakunde bati eratziki dakioke Konstituzioaren ondorioz diren eskumenen erabilera.
- Gorte Nagusiei edo Gobernuari dagokio itun horiek eta nazioarteko edo nazioaz gaindiko erakundeek emandako ebazpenak betetzen direla bermatzea.

6. BILAKAERA HISTORIKOA

I. Oinarrizko eskubideen bermeen bilakaera (Garrantzi handia ematen dio)

- XVIII eta XIX mendeetan, Estatuak arlo pribatua babestu behar zuen (eskubide negatiboak ziren, soilik “ez zapaltzea”, “ez debekatzea”, “ez interbenitzea” exijitzen zutenak.
- Eskubide politikoak zabalduz doaz ondoren; estatua demokratizatzen doa eta pertsona pribatuek arlo publikoan parte-hartzeko eskubidea dute (eskubide positiboak).
- XX. mendean, demokrazia ez da soilik formala izango, berme material batzuk behar dira. Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak agertuko dira.
- Oinarrizko eskubideen bermea:
 - Aitzinsolasan: “Babesa ematea espainiar guztiei... hala giza eskubideen arloan...”. Horretarako eskubide horiek juridikoki antolatzen dira Oinarrizko Eskubide bezala.
 - Lehen titulua: Oinarrizko eskubide eta betebeharrak (art.10-55)
 - Lehen kap. Espainiarrak eta atzerritarrak.
 - Bigarren kap. Eskubide eta askatasunak.
 - Hirugarren kap. Politika sozial eta ekonomikoa gidatzeko printzipioak.
 - Laugarren kapitulua: Oinarrizko askatasun eta eskubideen bermea.

- Bosgarren kap. Eskubideak eta askatasunak aldi baterako ahal-gabetzea.
- 10.1 art. “Ordena publikoaren eta gizarte bakearen oinarri dira gizabanakoaren duintasuna, hari datxizkion eskubide bortxaezinak, nortasunaren garapen askea, eta legeei eta gainerakoen eskubideei zor zaien begirunea”.

II. Botere banaketaren bilakaera

- Estatu absolutuan botere banaketarik ez. Liberalean bai.
- Locke eta Montesquieuren ideiak. Estatuaren botere banaketa.
- Botereen arteko kolaborazioa (sistema parlamentaristan) eta banaketa zorrotzagoa (presidentzialistan).
- **Banaketa horizontala**: legegilea gorteak (66.2), betearzlea gobernu (97), eta jurisdikzionala epaileak (117.3)
- **Banaketa bertikala**: estatua eta autonomi erkidegoak

III. Lege inperioaren bilakaera

- Konstituzioak, dokumentu politiko izatetik arau juridiko NAGUSI izatera.
- Legeen konstituzionaltasun kontrola eta Konstituzioaren zurruntasuna.
- Legearen nagusitasuna bermatzeko beste printzipio batzuk:
 - **Segurtasun juridikoa**: iragarritasuna eta aurreikusgarritasuna, arau mesedegarriagoaren ezarpena eta publikitatea
 - Botere publikoen **bidegabetasunaren debekoa** (103.1): beraien ekintzak ezin dira arbitrarioak izan.
 - Botere publikoen **erantzukizuna** (106.3 eta 121). Arau hauste baten aurrean erantzukizuna onartu behar dute

7. BABES MAILAK

I. Normala / Ertaina Arrunta EK. 53.1 art.

- 53. 1.- Titulu honen bigarren kapituluan (14-38 art) aitorturiko eskubide eta askatasunak lotesleak dira botere publiko guztientzat.
- Lege bidez bakarrik arautu ahal izango da (Reserva de ley) eskubide eta askatasun horien egikaritza;
- Lege horrek, edozein kasutan, haien oinarrizko edukia errespetatu beharko du, eta eskubide eta askatasunok 161.1.a) artikuluan ezarri bezala babestuko dira.
- EK 14-38

II. Altuena EK. 53.2 art.

- 53. 2.- Herritar guztiek auzitegi arruntetan eskatu ahal dute 14. artikuluan eta II. kapituluko 1. atalean aitortutako askatasun eta eskubideen babesa;
- Horretarako, lehentasun- eta sumariotasun printzipioetan oinarritutako prozedura erabiliko da, eta, hala denean, babes-errekurtsioa ere jar daiteke Konstituzio Auzitegian
- EK 14-29

III. Baxua EK. 53.3 art.

- 53. 3.-Hirugarren kapituluan aitortutako printzipioak onartu, errespetatu eta babestu egin behar dira, eta legeria positiboak, eginera judizialek eta botere publikoen jardunak horietatik izango dituzte kontuan.
- Jurisdikzio arruntetan halakoak alegatu ahal izateko, nahitaezkoa da haiek garatzen dituzten legeak aintzakotzat hartzea.
- Lege batez garatu behar da eskubide hau
- EK 39-52

8. OINARRIZKO ESKUBIDEEN BERMEA

- **Aitzinsolasan:** “Babesa ematea espainiar guztiei... hala giza eskubideen arloan...”. Horretarako eskubide horiek juridikoki antolatzen dira *Oinarrizko Eskubidebezala*.
- **Lehen titulua:** Oinarrizko eskubide eta betebeharrak (art.10-55)
 - Lehen kap. Espainiarrak eta atzerritarak.
 - Bigarren kap. Eskubide eta askatasunak.
 - Hirugarren kap. Politika sozial eta ekonomikoa gidatzeko printzipioak.
 - Laugarren kapitulua: Oinarrizko askatasun eta eskubideen bermea.
 - Bosgarren kap. Eskubideak eta askatasunak aldi baterako ahal-gabetzea.
- 10.1 art. “Ordena publikoaren eta gizarte bakearen oinarri dira gizabanakoaren duintasuna, hari datxizkioneskubide bortxaezinak, nortasunaren garapen askea, eta legeei eta gainerakoen eskubideei zor zaien begirunea”.

9. BOTERE BANAKETA

- Banaketa horizontala: legegilea gorteak (66.2), betearazlea gobernua (97), eta jurisdikzionala epaileak (117.3).
- Banaketa bertikala: estatua eta autonomi erkidegoak

10. LEGE INPERIOA: Konstituzionalitate printzipioa (9.1) eta legalitate printzipioa (9.3)

- Konstituzionaltasun printzipioa. 9.1: Herritarrak eta botere publikoak Konstituzioaren eta gainerako ordenamendu juridikoaren mende daude.

- Legalitate printzipioa. 9.3: Konstituzioak bermatzen ditu: legezkotasun printzipioa, arau-hierarkia, arauak publiko egitea, aldekoak ez diren edo norbanakoen eskubideak murrizten dituzten zigor-xedapenen atzeraeraginik eza, segurtasun juridikoa eta botere publikoen erantzukizuna eta arbitrariotasun-debekua.
- 9.2 berdintasun materialaz ari da. (lege inperioa)
- Horretaz gain: Gorte Nagusiak, Konstituzio Auzitegia, Gobernua eta Administrazio Publikoa, eta botere judiziala, legearen *menpe daude* eta EKrilotuta (97, 103.1 eta 117.1)

11. BOTERE BANAKETA

- Segurtasun juridikoa: iragarritasuna eta aurreikusgarritasuna, arau mesedegarriagoaren ezarpena eta publizitatea.
- Botere publikoen bidegabetasunarendebekua(103.1): beraien ekintzak ezin dira arbitrarioak izan.
- Botere publikoen erantzukizuna(106.3 eta 121). Arau hauste baten aurrean erantzukizuna onartu behar dute.

6. 2 GAIA: ZUZENBIDEAREN ITURRIAK


1. ZER DIRA?

- Estatu batean aplikagarri diren arau juridikoak sortzeko dagoen baliabide oro
 - Idatzizko zuzenbidea duten estatuetan normalean nazioarteko tratatuak, konstituzioak, legeak (izan estatalak nola autonomikoak), erregelamenduak, eta abar.
 - Konstituzionalismoaren hastapenetan: arauen jatorriari egiten zaion erreferentzia. Arau horiek iturrien bidez ordenamendura batzen ziren.

- **Definiziorik zabalduena:**
 - Ordenamendu juridiko jakin baten arabera, arau juridikoak sortzeko gai diren gertakari edota ekintzak (lehena ohituraren kasuan). Beraz, kategoria normatiboetara egingo zaie erreferentzia
 - Soilik iturri dira erga omnes eragina duten arauak. Inter partes eragina dutenak ez.

- Zuzenbide positiboan arauturik dago zeintzuk diren zuzenbidearen iturriak.
 - Estatu espainolean Kode Zibileko 1.1 artikuluan: “Zuzenbidearen iturri dira legea, ohitura eta zuzenbidearen printzipio orokorrak”
 - 149.1.8 CE: estatuaren eskumena da zuzenbidearen iturriak zeintzuk diren finkatzea.

2. ITURRI SISTEMA



3. LEGEA SORTZEKO OHIKO PROZEDURA

I. FASEA	
<p>Prozesua Kongresuan hasten denean (Talde parlamentarioek, Gobernuak, AEtako legebiltzarrek, Herri Ekinena)</p>	<p>Prozesua Senatuan hasten denean (Talde parlamentarioek)</p>
<p>1.- Kongresuak proiektua aztertuta eta onartzen bada, 2.- lege-proposamena edo lege-egitasmoa Senaturara pasatuko da.</p>	<p>1.- Senatuak lege- proposamena <i>kontinuan hartzen du</i> eta 2.- Kongresuari bidaltzen dio, eztabaidatu eta azter dezan. 3.-Kongresuak eztabaidaturako Senaturara itzuliko da.</p>

II. FASEA (I. faseko aukera bietarako berdin, Senatuan hasten da beti):

<p style="text-align: center;"><u>I. pausoa:</u> <u>Senatuaren iritzi-ematea</u> Senatuak bi hilabeteko epea du: a) Betoa emateko. b) Zuzenketak aurkezteko c) Edo baietza emateko. Baietza ematen bada prozesua hemen bukatzen da</p>	<p style="text-align: center;"><u>II. Kongresuaren bozketa (amaierakoa)</u> Kongresuak: a) Betoari aurre eginez, testua berriro onar dezake: gehiengo absolutuz edo, betotik bi hilabete igarota, gehiengo soilaz. b) Senatuan zuzenketak aurkeztu badira: gehiengo soilaz onartu edo ezeztatuko dira.</p>	<p style="text-align: center;"><u>III.- ONDORIOAK</u> Igo pausoen Senatuak baietza eman bada, edo Senatuaren betoa/ zuzenketak ikusita (onartu edo ez) Kongresuaren amaierako bozketan testua onesten bada, Estatuaren Buletinean argitaratuko da, eta <i>vacatio legis</i>⁹ delakoa igarota, indarrean sartuko da.</p>
--	--	--

4. PROZEDURA BEREZIAK: EK 93 Nazioarteko itunak + 94

- Lege organikoaren bidez itunak sinatzeko baimena eman daiteke; itunok direla eta, nazioarteko antolakuntza edo erakunde bati eratziki dakiokete Konstituzioaren ondorioz diren eskumenen erabilera.
- Gorte Nagusiei edo Gobernuari dagokio, kasuan kasuan, itun horiek eta nazioarteko edo nazioaz gaindiko erakundeek emandako ebazpenak betetzen direla bermatzea.

5. ARAUEN ARTEKO HIERARKIA PRINTZIBIOA



6. ARAUEN BALIOZKOTASUNA, ERAGINKORTASUNA ETA JADANEKORASUNA

- **Baliozkotasuna (Validez):** existentzia juridikoa da
Noiz da arau bat baliozkoa?
 - Eskuduna den subjektuak, dagokion prozeduraz sortu duenean, dagokion arau formarekin, lerrun altuagokoak diren arauen edukia errespetatuz.

- **Eraginkortasuna (Efectividad):** Bere helburuak betetzen ditu errealitatearekiko?
- **Jadanekotasuna (Vigencia):** arau juridiko baten existentziaren hasiera arau bezala. Baliozkotasunaren eta eraginkortasunaren arteko lotura.
 - Eraginkortasunerako, baliozkotasuna + jadanekotasuna beharrezkoak
 - Vacatio legis: jadanekotasuna argitalpenetik atzeratu egiten denean. Espainiar estatuaren kasuan, besterik ezean, 20 egun (KZ 2.1).

7. LEGE LERRUNA DUTEN ZUZENBIDE ITURRIAK

I. LEGE ARRUNTAK ETA LEGE ORGANIKOAK

- Organikoak: EK 81 art.
 - Lege organikorako erreserba egiten du.
 - Materiak: oinarrizko eskubideak, autonomi estatutuak, hauteskunde erregimena eta konstituzioak ezartzen dituenak (estatu aparatuek arautzen dituztenak adibidez: LOTC, LOPJ...).
 - Onarpenerako: gehiengo absolutua exijitzen dute Kongresuan, proiektua osotasunean bozkatuz.
- Arruntak: beste guztiak. Gehiengo sinplez onartzen dira.

II. LEGE- DEKRETUA (EK 86 art.)

- 86.1: definizioa eta mugak. 86.2: kontrolerako prozedura Kongresuan.
- 86.3: lege proiektu bezala tramitatzeko aukera.
- Botere exekutiboak bere ahalmen normatiboak handitzen, lege mailako arauak egiteko ahalmena (behar urgente).
- Nahiz eta printzipioz urgentziazko legegintzaren parte den, praktikan ez da hori gertatu dena.
- Gorte Orokorren lanaren deskarga moduan konfiguratu da kasik.

- Hiru muga
 1. **Egoerazkoak** (circunstanciales): printzipioz ezohiko eta urgentea den beharra behar da. Praktikan, AKk ohiko bitarteko bilakatu du. Erabaki POLITIKOA da behar hori dagoen zehaztea. Behar erlatibo bat da, zeinean gobernuak azkartasuna behar duen bere helburuak betetzeko.
 2. **Materialak** (edukizkoak): Lege Organikorako erreserbatuak dauden materiak ezin dira lege-dekretu bidez arautu.
 3. **Tenporalak**: lege-dekretuak behin behinekoak dira Kongresuak baiezkoa ematen duen arte. Konbalidazioa argitaratu eta 30 egunetako epean eman behar da, edo indargabeturik.
 - ❖ **Konbalidazioa**: ezin dira emendakinak aurkeztu. Eztabaida lege-dekretuaren osotasunaren gainean egiten da.
 - ❖ Lege-dekretuaren kontrola (AK.konstituzionaltasun kontrola): Forma, prozedura, eta edukia
 - ❖ Legean bihurtzeko aukera: 30 egunetako epean eman behar da, eta lege proiektu bezala tramitatuko da, urgentziazko prozeduraz

III. LEGE LERRUNA DUTEN ZUZENBIDE ITURRIAK GINTZARAKO ESKUORDETZA. DEKRETU LEGEGILEA

- Dekretu legegilea lege lerruna duen arau bat da, eta Parlamentuaren eta Gobernuaren arteko elkarlanean oinarritzen da.
- Aurrez Gorteek Gobernuarengan eskuordetza/delegazioa egitea eskatzen du. Delegaziorik ez badago sortutako araua ez da baliozkoa izango.
- **Dekretu legegileen kontrola**
 - Konstituzionala, AKk egina. Arau forma, prozedura, edukia
 - Jurisdikzionala: Kontituzionaltasun galdera
 - Parlamentarioa: Kontrol politikoa da. Diputatu bat kexatu daiteke, eta orduan batzorde baten diktamen bat egin beharko du. Eragina soilik politikoa da.

IV. LEGEGINTZARAKO ESKUORDETZAREN MUGAK. DEKRETU LEGEGILEA

- **Eskuordetza legeari: (Parlamentuari)**
 - Muga komunak bientzat:
 - Ezin dio lege organikora erreserbatutako materia bati eragin.
 - Delegazioa espresoa izan behar da, materia zehatz baten gainean eta epe jakin baterako.
 - Delegazioa atzera bota daiteke.
 - Delegazioa gobernuari egiten zaio, eta eskuordetza legeak ezin dio honi beste subjektu batengan delegatzeko ahalmena eman.

- **Dekretu legegileari: (Gobernuari)**
 - Behin bakarrik erabiltzen ahal da eskuordetza. Horrek ez du esan nahi dekretu bakarra egin daitekeenik. Baina behin eginda, ezin da moldatu. Ezin da subdelegaziorik egin. Ministro batek, zuzendari batek... ezin du dekretu-legegile bat diktatu.

V. ERREGELAMENDU ITURRIAK (FUENTES REGLAMENTARIAS)

- **Zer da?**
 - Askotariko arauak daramate espainiar ordenamenduan "erregelamendu" izena; hori bai, Gobernutik edo administraziotik datozen arauak; orokorrean, botere exekutibo bezala ezagutzen dugunetik. Legearen menpekoak dira. Lerrun baxuagoa dute.

- Badaude halere bereziak direnak
 - Erregelamendu parlamentarioak. Lege lerruna dute.
 - TC edota CGPJeko erregelamenduak. Erregelamendu propioak.
 - Beste organismo batzuenak

- **Erreglamendu ahalmenaren titularitatea. Nork dauka?**
 - Gobernuak, bere osotasunean, Konstituzioaren 97 artikulua arabera.
 - Gobernuaren legeak dio Presidenteak eta Ministroek ere aukera dutela.
 - Lehenak Gobernu Presidentearen Errege Dekretuak
 - Bigarrenak, Ministerio Aginduen bidez (Órdenes Ministeriales).

- **Lege erreserba printzipioa:**
 - Historikoki eskubide eta askatasunak gordetzeko bitarteko bat zen, Parlamentuak zuena Erregearen aurrean. Berez, burgesiaren lanabes bat zen.
 - Gaur egun: bai Gobernua eta bai Parlamentua demokratikoak dira, baina parlamentuan gutxiengoak ordezkaturik daude, eta horiek aukera dute arauaren sorrera prozesuan parte-hartzeko.
 - Lege erreserba ez da Parlamentu erreserba gure sistema juridikoan, lege organikoekin ez bada.
 - Lege erreserbak ez du eragozten erregelamendu bidez garatzea legean jaso ez dena. Legean funtsezkoena dena jasotzen da.

- **Legearen nagusitasun printzipioa:**
 - Erregelamenduaren helburu nagusia legea aplikatzea da, eta hortaz, estuki lotzen zaio.

- **Erregelamendu motak:**
 - **Independente edo paralegalak.** Materia bat arautzeko legerik ez dagoenean.
 - **Exekutiboak/betearazleak:** erregelamenduak legearekin “Kolaboratzen” duenean materia bat arautzeko. Antolakuntza bitartekoak ezartzen ditu erregelamenduak, baina ez hori soilik, baita legea bete, garatu, zehaztu, aplikatu, osagarritu, exekutatu.
 - **Beharrezko erregelamenduak** (reglamentos de necesidad): behar egoera batean emandako erregelamenduak, behin behinekoak direnak, eta batzutan baita ilegalak ere.